

Hezegune bat Sotobajon, Faltzes

Ibaiak leku bat
irabazi du
europar
bisoiarentzako...

2012 ZUREKIN
BAGOAZ AURRERA

Nafarroako
Gobernua

Obra Social "la Caixa"

GESTION AMBIENTAL
VIVEROS Y REPOBLACIONES
DE NAVARRA S.A.

Ayuntamiento
de Falces



Sotobajo Faltzesko udal barrutiaren hegoaldean dago, Arga ibaiaren ezkerreko ertzean. Azkoiengo Soto de la Muga alderdia du mugakide, **Molinar ibaiaren** bokalean; ibai horrek Faltzesko betiko ureztapenean sobran dagoen ura bildu eta Argaraino eramaten du.

Sotobajo **Aragoi eta Arga ibaien beheko tartea** **deritzon Batasunaren Intereseko Lekuan (BIL)** sarturik dago. Inguruak balio ekologiko nabarmenak ditu eta, horregatik, Natura 2000 Sarea izeneko sare ekologikoaren baitan dago

Balio ekologiko nabarmenak dituen lekua



BIL honetako landaredian bi gauza dira nabarmengarri: batetik, **ibaiertzeko baso** bakartuak eta, bestetik, balio ekologiko handiko **sotoak**. **Mediterraneoko makaldiak** ere badira, bai eta ingurune horiei lotutako hainbat komunitate ere: **ihitokiak**, esaterako. Sotobajoko fauna-espezieen artean, **bisoi europarra** nabarmendu beharra dago, mundu zabaletik desagertzeko arriskurik handienetakoa duen espeziea baita. Bestelakoak ere badira; adibidez, **igaraba**, **apoarmatu istilzalea**, uretako hegazti negutarrak eta udatiarrak (**zertzeta arruntak**, **ahate mokoazabalak**, **ubarroi handiak**, **miru beltzak**, **gabiraiak**, **uroilanda handiak...**), etab. "Aragoi eta Arga

ibaien beheko tarteetan" bisoi europarraren Nafarroako populaziorik ugariena atzeman zen eta, kontuan hartuta Erkidego honetan bizi direla Iberiar Penintsulako bisoi europar guztien % 70, ibarbaso eta soto horiek oso garrantzitsuak dira haren biziraupenerako.



Gizakiak eraldatutako lekua



1957
Arga ibaiaren berezko ibilbidea, Faltzesko zubitik behera.



2005
tarte berbera, 60ko hamarkadako kanalizazioaren ondortik.



2008
Argaren tarte honetako meandroak leheneratzeko eta hezeguneak sortzeko lanak.

Orain dela urte asko Arga ibaiari egindako **kanalizazioaren** eskutik etorri da habitat eta espezie garrantzitsu horientzako mehatxurik handienetakoa bat. Ibaiarekiko lotura hautsita, izan ere, meandroak, uharkak eta balio handiko soto natural batzuk ibaitik isolatuta gelditu ziren. Kanalizazioak ibaiari berari egin dio kalte, uholdeen berezko laminazioa eragotzi baita, eta ibaiertzeko basoei ere bai, ez baitira haietaraino iristen

uhaldietan ongarrizten zituzten malak eta mantenugaiak.

Natura 2000 Sareko leku honi dagokionez, Nafarroako Gobernua eta herriak elkarrekin ari dira ibai-ingurunea **iraunkortasunez kudeatzeko egitasmoak** lantzen, ibaiak ingurumenaren aldetik hobetze aldera eta uholdeek eragiten dituzten arriskuak ahalik eta gehien murrizte aldera. (LIFE GERVE, Interreg-GIRE...).

Sotobajo, zerbitzuak eta ingurumen arloko balio interesgarriak leheneratzeko sortu den hezegunea

Egitasmo horiek, besteak beste, Sotobajon garatzen ari dira; hau da, Natura 2000 Sareko leku honetako alderdietako batean. Sotobajoko hezegunea herriaren jabetzapeko lursailetan sortu da; makaldi zahar bat da, Faltzesko Udalak espezie garrantzitsuen kontserbazioaren zerbitzuan jarri duena; espezion artean, bisoi europarra da azpimarratzekoa. Hartara, Faltzesko ureztapen-sailen itzulerako urak baliatu dira baltsa eta ubide sare konplexu bat sortzeko, ura Argan isurtze aldera.

Hezegunea moldatzearen bidez, **helburu** hauek lortu dira:

- Kalitatezko habitat-azalera handitu da hainbat espezierentzat: bisoi europarra, igaraba, apoarmatu istilzalea...
- Sahastien eta makaldien kalitatea hobetzea
- Ibaiaren berezko dinamika sustatzea
- Ingurune honetako natur balio garrantzitsuak gizartearen eskura jartzea



Haurrak Sotobajoko Hezegunearen inguruan, Zuhaitzaren Egunean.

Ibilaldi atsegina, hezegune honek eskaintzen dituen onurak bertatik bertara ezagutzeko

Bi ibilbide moldatu dira, herritarrek (bai bertakoek bai bisitariak) leku honetako balioak ezagut ditzaten. Haietako bat **laburra** da, 500 metro inguru ditu, eta mugikortasun urriko eta ikusmen urritasuna duen jendearentzako egokitua dago. Bestea, luzeagoa da, 2,5 km ditu eta ez da horren irisgarria; egokiagoa da bizikletaz edo oinez egiteko, eta isiltasun handiagoa behar du, bai eta lasaitasun handiagoa ere, basa faunari eragozpenik ez egiteko.


Hasteko eta bat, egokia izan daiteke bisitariak ibilbide laburra egitea. Ibilian hainbat panel aurkituko ditu hezeguneak dakartzan **onuren** berri izateko. Honatx aurrerapen bat...

- Behar adina "osagai" eskaintzen ditu animalia eta landare espezie aunitz bertan egotea sustatzeko
- Ureztapen-urak araztu eta Arga ibaira garbiagoak itzultzen ditu
- Uhdietarako uholde-lautada da; hau da, uren indarra geldiarazi eta, horrela, ibaian behera kalteak eragozten ditu
- Jendearentzako leku gozagarria da eta, herritarren artean, balio horiek zaintzearen aldeko jarrera sustatzen du



AZKOIEN





Animalia eta landare espezieak

Guk proposatzen dizugun ibilaldia egiten baduzu, edo hezegunean barneratzea erabakitzen baduzu, erne egon. Horrela, espezie hauetako batzuk ikusteko eta gozatzeko aukera izanen duzu:

Animaliak

Hegaztien artean, ahate mokozabala (1), ubarroi handia (2), zingira mirotza (3), zertzeta arrunta (4), miru beltza (5), gabiraia (6), uroilanda handia (7)... Eta haitzebakirantz begiratzen baduzu... saiarra, sai-zuria (8), belatz handia (9), harkaitz-zozo urdina (10)...

Ugaztunak: bisoi europarra (11), igaraba

Anfibioak: apoarmatu istilzalea (12)


Landareak

Sotoetan hauek nabarmentzen dira:

- Zurzuria (*Populus alba*) (13)
- Makal beltza (*Populus nigra*) (14)
- Lizar hostotxikia (*Fraxinus angustifolia*)
- Milazkak (*Tamarix spp*)
- Iparraldeko elorri zuriak (*Crataegus monogyna*) (15)
- Zuhandor gorriak (*Cornus sanguinea*) (16)
- Laharrak (*Rubus ulmifolius*)
- Arkakaratsak (*Rosa sempervirens*)

Eta urtetatik hurbilago:

- Zume zuria (*Salix alba*) (17)
- Lezkak (*Phragmites australis*)



Faltzesko beste toki interesgarri batzuk


Natur ondarekoak...


> **BARRANCO DE SIERRAS (1) (ESTELLERRIKO IGETLSUAK BILean)**
Hirigunetik abiatuta, hilerrirako bidean, Barranco de Sierras alderdira iritsiko gara. Nabarmena da, eremu lehor, menditsu eta oso higatuan egonda ere, alderdi horretan dagoen landaretza.

> **ARQUILLO ETA BARBARACES NATUR ERRESERBA (2)**
Miranda Argara doan errepideari jarraitu eta Arquillo eta Barbaraces Ibarbasoetako Natur Erreserbara iritsiko gara, Arga ibaiaren bi ertzetan, Arquilloko presatik behera. Ibaiertzeko basoaren gune adierazgarriak daude, bai eta landare eta animalia espezie interesgarri asko ere.

Ondare historikotik...

- > SAN ESTEBAN AZTARNATEGIA (5)
- > KALBARIOKO KRISTOREN BASELIZA, XVIII M. (6)
- > MUNDUKO SALBATZAILAREN BASILIKA
- > MAIRUEN GAZTELUA, VIII. MENDEKOA (3)
- > FALTZESKO SANTA MARIA ELIZA (4)





Argibideak

Faltzesko Udala

☎ 948 73 40 72
@ ayto@falces.org
www.falces.org

Udaltzaingoa

☎ 663 82 28 00

“El Cajo” landetxea

☎ 646 26 72 26

D. Diego de Larrea Jatetxe Erretegia

☎ 948 71 40 02

Garmendi jatetxea

☎ 948 73 43 56

Rubio bokateria

☎ 948 73 46 18

Consortio Eder (www.consortioeder.com)

Egun seinalatuak: abuztuaren azken hirugarren igandean, Nievako Ama Birjinaren omenezko jaiak. Piloiairen entzierroa egiten da, entzute handikoa. Munduko Salbatzailearen omenezko jaiak, azaroaren gan. Maiatzean, gaztediaren festak.

Faltzesen:



Cruzando el puente sobre el río Arga, tomamos el camino a la derecha siguiendo la margen izquierda del río. En este mismo punto tenemos un aparcamiento para visitantes con plazas adaptadas, merendero y punto de información. A poco menos de un kilómetro existe otro aparcamiento de las mismas características y desde aquí podemos tomar uno de los dos senderos que nos conducen por este humedal.

El sendero corto, de 500 metros, está adaptado para personas de movilidad reducida y deficiencia visual. En este recorrido encontraremos diversos paneles de los beneficios que aporta este humedal, ofreciendo todos los ingredientes necesarios para favorecer la presencia de numerosas especies de animales y plantas, siendo su principal habitante el visón europeo.

El visón europeo es un mustélido semiacuático de color marrón chocolate, a excepción de dos pequeñas manchas en los labios. Le gustan los ríos de tamaño medio o pequeño, en los que encuentra abundantes espacios para

refugiarse y criar. Después del lince ibérico, es el mamífero carnívoro más amenazado de Europa. Hay un Punto de Información "Territorio Visón" dentro del casco urbano, en la calle Echarrri.

El segundo recorrido, es menos accesible y se puede hacer bien a pie o en bicicleta, requiere mayor silencio y tranquilidad para no molestar a la fauna silvestre.




Imagen sendero,
a lo largo del itinerario del Humedal

Itinerario Humedales

PERALTA

Sistema de las balsas
y canales que vierte al Arga

Sendero largo (2,5 km)

Río Arga

Sendero corto (500 m)


Aparcamiento con plazas
adaptadas, exclusivamente
y con opción de viraje para
autobuses adaptados

FALCES

Acceso: NA-6210
Carretera de Tafalla



Imagen visón en humedal
Falces



Zona de acogida:
- Aparcamiento para
visitantes con plazas
adaptadas y para autobuses
- Merendero
- Punto de información